

Ihesi

URTZI URRUTIKOETXEA

Argazkiak: Iñigo Azkona

Bilbo-Santurtzi

Uretako burdin bideetan

Bilboko itsasadarra ezagutzeko Ezker edo Eskuin aldetik egin ohi da txangoa. Baina erdi-erditik ibaian behera joateak erabat aldatzen du ikuspegia. Hamahiru kilometroan gure herriko historia moderno eta industrialak biltzen da. *Euskal Herria* ontzian Iñaki Uriarte arkitektoa gidari daramagula, geografia bereziaren esangura sakonaz, ondarearen garrantziaz eta eremuaren balioaz hausnartzera behartuta gaude.

BADAKIGU, baina gogorarazi egiten digu gidariak: ibaiko paisaiak ez dauka zerikusirik beste erreka batzuen altzoan eraikitako monumentalismoarekin, industriaren bidea egingo dugu. Sarrionandiarren berbak etorri zaizkit gogora, hau ez dela Venezia dioskularik: “Ez da Danubio deitzen, ez da Mississippia, Ibaizabal deitzen da nire sorterriko ibaia”. Gure historia hurbil eta ez hain hurbilean txangoa, milaka pertsonaren izerdiarekin altxatutako lantegien aztarnak eta harribitxiak ezagutzeko.

Mendietan burdina eta burdin horren merkataritza berehala bideratzeko itsasadarra. Horra Euskal Herriko industria gune garrantzitsuena bultzatzeko ezinbesteko osagaiak, karlistaden ostean laster baten Bizkaiko ingurune hau guztia goitik behera eraldatu zuena.

Zubietatik lantegietara

Zubien artean egindako bidea da Bilbok erakusten diguna, gutxika-

gutxika geroz eta zabalago, itsasora bidean. Mareek eragiten zuten lekuraino izan zen posible nabigazioa, gaur txangoa udaletxeko zubitik hasi badugu ere. Beste sei topatuko ditugu ibaiadarrak Bizkaiko hiriburuan egiten dituen ia kilometro bietan; denetan bere burdinak du garrantzia. Laster agertu zaigu Zubizuri polemikoa, auzotarrek sarri eskatu zutena, eta

Prozesu gisa ulertu arren, data zehatza dauka Bilbon eraldaketak: 1983. Uriolak ekarri zuen ibai ertza biziberritzeko bultzada



ontzi handien nabigazioa lehen aldiz eten zuena.

Hurrengoak zurruntasuna ageri du estetikan: Salboko zubia. Aitzitik, 1972ko zubi praktikoa

hori aski garaieraz altxatu zuten ibaiadarraren funtzio naturalarekin jarrai zezan. Gero, Bilboko portuarenak eginda, Guggenheim museoa txertatu zaio, fusio berezi eta dotorea osatuz. Ezin gauza bera esan museoaren hamargarren urteurrena ospatzeko ezarri dioten arkuaz. “Gustu txarreko pastitxe hori kendu egin beharko dugu egunen batean”, diosku Uriartek.

Industriaren heriotza eta XX. mendeko hirien amaiera prozesu gisa ulertu arren, data zehatza dauka Bilbon eraldaketak: 1983. Uriolak ekarri zuen ibai ertza biziberritzeko bultzada. Turistak hasi dira Abandoibarran, baina nortasunaren galera ere izan du prezioa. Deustuko zubiaren dardarek hiriko bizitasuna gogorazten digute, eta berriz noiz zabalduko duten irudikatzen dugu, lehenago pasa dugun Arrupe aitaren zubi berriak atzera ere nabigazioa oztokatzen duen arren. Eskuin aldeko aberastasun-





Txangoaren amaieran Portugaleteren dotorezia agertu zaigu bete-betean, Ezkerraldeko garabi-basoari erreleboa eginez. Tregoa bat besterik ez, Santurtzitik aurrera berriro burdina nagusituko da eta. Baina gizakiak ez du kolonizazioa guztiz burutu, beheko argazkiak ageri duenez: azken gotorlekuei eusten diete hegaztiekin nola edo hala.

na unibertitatean haragiturik, beste alde-
ra jauzi egin du berriki. Ezkerraldera doa
begirada etengabe, horratik, Arte Ederre-
tako museoa eta haren atzean Casilda Itu-
rizarz parkea. Bilbotarren betiko eskaria,
parkea itsasadarreraino hedatu zedila, mer-
kataritza eremu erraldoiak eragotzi dio.

Hala, biziberritzea historiaren eta izaera-
ren kaltera izan da sarri: Biltegi Frankoa
erabat birrindu zuten legez, fatxada soilik
utziz; antzeko ereduak nagusitu dira gure
ondare industrialean. Behinolako funtzioa
galduagatik eraikinari eutsi eta baliabide
berriak bilatu beharrean, eraispen eta erai-
kuntza enpresak puztu, eta oroimenerako
gorde tximinia bat edo antzeko objektu gal-
duren bat testuingurutik kanpo.

Deustuko zubiaren ostean dator Eus-
kaldunakoa eta horixe bera ageri digu Eus-
kalduna Jauregiaren ostean Carola gara-
biak. Lantegia edo haren hiru garabien
ordez, bakarra gorde, eta publizitaterako
erabili. Euskaldunako zubia gaundituta,
Olabeaga, hiriko nortasun berezieneko
auzoa, eta segidan Zorrotza eta Zorro-
tzaurre, mende osoan protagonista eta
hala ere, hiriko bihotzetik hain urrun.
Zabalkunde berriak hemen jarri ditu
begiak, eta aurreko akatsetatik ikasiko
dugulakoan, monumentalismo industrialari
eustea da erronka XXI. mendeko eralda-
ketan. 1924ko Molinos Vascos lantegia,
eta aurrez aurreko penintsulako fabrika
mordoa, biharko arte gune edo bestelako
enpresen txoko izan daitezke erraz asko
irudimen pixka batekin.

Ibaiadarra bere handian

Bilbo utzita amaitzen dira itsasadarren
zubiak, Bizkaikora iritsi artean. Gasolino-
ak erabili dira urtetan alde biak lotzeko,
eta hala jarraitzen dute bizpahiru lekutan
oraindik. Kadagoak Barakaldoko muga
egiten du Talleres de Zorroza arkitektura
ingeles zurrunaren beste aldean. Behino-
lako Sefanitro erraldoiak herri bat gorde-
tzen du bere baitan, eta eremuaren fun-
tzioa ezin hobeto azaltzen duen
kargalekua adierazten digu gidariak. Bur-
dinazko mendietako mea berehala zamatu
eta munduan barrena eramateko gertu.
Behar zuenaren begirune erdirik gabe
ordea, ondare aberatsa deuseztatu dute
azken urteotan.

Galindok Sestaorekin lotzen du Barakal-
do, eta txangoko une gorena adierazten digu
La Naval-en egiten ari diren itsasontzi
eskergak. Izan zenaren itzal soil, bai, baina
ezin mutu baino geratu garabi dantzaren
handitasunean. Aurrera doa ontzia, La Ibe-



Euskal Herria ontziak Bizkaiko Zubirantz garamatza apurka-apurka. Hura da burdinaren adierazpiderik bikainena Bilbotik mundura bidean, edo mundutik Bilborantz sartzen datozenentzat. Zubiaren itzalean, baina hura askoz zaharrago, azken hatsari lotua dabil gasolinoa, alderik alde etengabeko bidaian. Antzina itsasadarraren bazter biak lotzen zituzten dozenaka ontzietatik bakanetakoa dugu gaur Areeta eta Portugaleteren arteko hau.

ria lantegiaren lekuan Acería Compacta de Bizkaia (ACB), Benedikta dartsenaren aldamenean. Bidaia laburrak tarteka baino ez digu begirada beste aldera eramatea ahalbidetu, Erandioko lantegi eta ontziola txikiagoetara.

Itsasadarren zabaltasun betean Portugaleteko dotoreziarekin egin dugu topo, Andra Mari elizak eta udaletxeak agerian, eta txangoaren erremate paregabearekin bidenabar: Bizkaiko Zubia. Transbordadorea da zubia baino, baina semantikaz harago, burdinaren adierazpide bikainena Bilbotik mundura bidean, edo mundutik Bilborantz sartzen

datozenentzat. Mundu osoan hemeretzi baino ez ziren egin, eta zazpi diraute zutik, hauxe da

Zabalkundeak Zorrotza inguruan jarri ditu begiak, eta aurreko akatsetatik ikasiko dugulakoan, ondare industrialari eustea da erronka

ondoan gorde eta lanean 24 orduz jarraitzen duen bakarra.

Itsasadarra Abrara isurtzeko amaiera bikain horrek beste

laguntzaile batzuk ditu: eskuin aldean Evaristo Churrucaren eskultura ageri zaigu. Churrucaren garrantzia, horratik, bide osoan eta Abrako irekiera honetan ageri zaigu: hareazko barra gainditzeko drainatze sistemak eta ibaiadarreko gainontzeko obra nagusiak ingeniari nafarraren eskutik iritsi ziren.

Santurtzi da helmuga, non eta txangoa ez dugun atzera Bilborantz egiten itsasadarrean. Ibilgua- ren atzerako bidearen patxadan, burdinaren eta ibaiaren ezkontzak Euskal Herriko historiako pasarte garrantzitsuenetakoak hobeto behatzeko parada eman digu. ■



URRUTI

Sport

Parapente Ikastaroak eta bi lagunentzako hegaldiak

- Parapentea
- Alpinismoa
- Elurra
- Piraguismoa
- Paintball
- Txirrindularitza
- Kayak...

Jose Maria Soroa 20 • 20013 Donostia • Tel/Faxa: 943 27 81 96 • urruti@urruti.com • www.urruti.com